

## OGIBIDEAK

Sekuentzia honetan, Durangon lehen eta orain nabarmendu diren ogibideen berri ikasiko dugu. Bide batez, kazetari lanean ariko gara, eta **taldeka** inguruan duten pertsonaren bati bere ogibidearen eta honi lotutako bizitzaren gaineko elkarrizketa bat bidez grabatuko dugu. Grabaketaz gainera pertsona horren fitxa osatuko dugu, bere biografia eta datu interesgarrienak jasoz.

### DURANGO TXIKIA

Atal hau unitate guztietan edukiko dugu. Bertan, gaiari lotutako materiala etxetik ekarri eta eskolan/ikastolan erakusgai jarriko dugu, ahal baldin bada jendeak ikusteko lekuan (sarreran, pasilloan, ...) Honekin eskola komunitateak zertan ari garen jakingo du zertan ari garen. Materiala ekartzen dutenean zer eta zergatik ekarri duten azaltzea izan daiteke ariketa posible bat. Ikasleak ahozkoasuna landuko du horrela.

### MARI ETA KONPAINIA

Unitate honetako lehen jarduera da, beraz, aurrezagutzak lantzeko erabiliko dugu. Komikiak ogibideei buruzko informazioa ematen du. Horrez gain laguntza galdera batzuk proposatzen dira. Inportanteena gaiari buruz hitz egitea eta bakoitzaren bizipenak beste ikasleekin konpartitzea da. Bukatzeko *Idatziz landu* atalean gehien errepikatu diren lanbideak edo gehien gustatu zaizkienak hautatu eta testu labur bat idatziko dute lanbide horri buruz. Testu horretan, lanbide horri buruzko beraiek nahi duten informazioa txertatuko dute, zer duten gustoko lanbide horretatik, zer gutxien, zergatik aukeratu duten lanbide hori...

Jarduera hau egiteko guztiok elkar entzuteko moduan jartzea egokia litzateke, borobilean adibidez.

### HISTORIAN ZEHAR/HIRIBILDUKO OGIBIDEAK ERDI AROAN

Historian zehar gizakiak Durangon Erdi Aroan landu izan dituen ogibide ezberdinei buruzko testua azaltzen da, ondoren Osaba Bitorren kontakizun bat dago Durangoko hiribilduari buruzko antzinako lanbideei buruzkoa. Testu hau irakurri ostean, talde dinamika bat erabili dezakegu ulertu dutena azaltzeko elkarri. Tertuliatxo baten laguntzarekin, testu horietan azaltzen den informazioa berenganatu dezakete. Aukera bat litzateke, marrazki bat egitea garai hartako hiribilduko lanbideei buruzkoa.

## OGIBIDEEN KALEA

Ogibideen kalearen marrazkiari behaketa egitea da helburua. Behaketa egin ostean, lanbide bakoitzari buruzko deskribapen txikia egingo da. Komeni da lehenik ahoz lantzea eta behin azalpena argi geratu ostean, bakoitzak bere jarduera burutzea liburuan.

## NORK? ZER? NOIZ?

Antonio eta Juan Kruz de la Fuente zilarginei buruzko testua irakurri ostean, berriketa saioa egingo dugu Durangoko Plateruei buruzkoa. Proposatzen den ariketa, bi pertsonai xeble hauen inguruan berriketaldi bat egitea da, bi hauen bizimodua hurbilagotik ezagutu dezaten.

## KAUSINO

Oskorri taldearen Kausino euskal filosofo abestia entzungo dugu, Durangoko Plateruei buruz zertxobait gehiago jakiteko balio du eta aldi berean musikaz gozatzea. Aukera ona litzateke estrofaz estrofa ahoz beraien esanahia ateratzen saiatzea.

## PLATERUEN LEKUAK

Atal honetan, Plateruek Durangon utzi duten arrastoa landuko dugu, horretarako Plateruen plaza eta Kafe Antzokia aztertuko ditugu. Horretarako, Kafe Antzokiari buruzko informazioa bildu beharko dute ikasleek eta liburuan azaltzen den fitxa hori bete. Horretarako, Internetez, etxean jaso dezaketen informazioaz edota beraiak dakitenaz baliatu daitezke.

## TRENAREN ETORRERA

1882an Durangora trena iritsi zen, Durangoko langileengan eragin nabarmena izan zuena. Ariketa honen helburua, ikasleak Durangora trenak ekarri zuen aldaketaz jabetzea izango da. Testua irakurri ondoren, *Berbetan* atalean agertzen den galderari tiraka tertuliatxo bat egin dezakegu gai honen inguruan.

## BAZENEKIEN?

Bitxikeria moduan, Durangoko “Langile batailoia” zer den ezagutzeko parada izango dugu, horretarako testua irakurri eta azaltzen diren irudiez baliatu gaitzke. Garrantzitsua da jakitea,

gaur egungo egoeran izateko nork berreraiki zituen eraikin hoiak, era honetan umeak handik dabiltzanean kontziente izateko bertan zer gertatu zen.

## GERROSTEKO HAZKUNDEA

*Populazioaren hazkundera* testuan migrazioak Durangon izan duen bilakaera azalduko du 1930-1981 urteen artean, testu hau talde txikietan zein talde handian irakurri daiteke. Garrantzitsuenak, 1930eko biztanleriaren hirukoitza zegoela 1981ean konturatzea da eta hazkunde horretan lanak izan duen eragin nabarmenaz jabetzea.

## LANAK ETA LANAK

Jarduera honetan, *ahotsak* atariko elkarrizketa bat aztertuko dute talde txikian. Elkarrizketa ikusi ostean, taldekideek elkarrizketan aipatzen diren kontuak alderatuko dituzte gaur egungoekin, horretarako taldekide bat moderatzailea izango da eta beste bat idazkaria. Alderaketa bakoitza puntuz puntu jarriko dute koadernoan, ez dira alderaketa asko idatzi behar, nabarmenenak jarri gero nahikoa da.

## AZKEN EKOIZPENA

Azken proiektua egiterakoan, taldeka banatuko dira, aukera bat litzateke aurreko ariketa egiteko erabilitako taldeak mantentzea edota berriz beste talde batzuk eratzea.

Azken ekoizpen honen helburua, ikasleak kazetariaren azalean jarri eta pertsona baten lanbideari buruzko informazioa eskuratzea da. Horretarako, kontuan hartu beharko dituzte elkarrizketa bat egiteko pausoak eta ardura banaketa egin beharko dute aurretik (nork egingo dion harrera, nor izango den idazkaria, nor galderak egingo dituenak, grabatzailea nor izango den...). Komeni da banaketa hori egiteaz beraiek arduratzea. Lehen pauso hori egin ostean, elkarrizketa egingo dute eta bertan jasotako datuekin pertsonaren fitxa bat egingo dute *plateruan lekuak* atalean egin duten bezalakoa. Ez dago elkarrizketan esandako guztia jarri beharrik, ez da inondik ere, beraientzat garrantzitsua den informazioa soilik hartuko dute kontuan. Behin atal hau bukatuta, elkarrizketa ikaskideen aurrean azalduko dute, pertsonari buruzko azalpen labur bat egingo dute (nor den, zertan lan egin duen...), besteek elkarrizketen nondik norakoak jakiteko, besterik gabe. Komeni da azalduko dena gerora bideoan ez errepikatzea beraz aurkezpenean esango dena ongi pentsatzea eta laburra izatea garrantzitsua da.

## ZER IKASI DUT

Atal denetan azaltzen dira ebaluazio galdera hauek. Ebaluazioa atal ezberdinetan banatuta dago. Alde batetik, beraiek ikasitakoa azaltzen da. Bestetik, taldean edo taldekideengandik ikasitakoa eta azkenik, materiala edo unitatearen ebaluazioa. Ahoz zein idatziz egin daiteke.